

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARMIÑONGO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Auzolanen ordenantzaren hasierako onespena

Kontzeju honek, 2023ko martxoaren 8an egindako bilkuran, auzolanak arautzen dituen zerga ordenantza ezartzea eta onestea erabaki zuen.

Jendaurrean jartzen da, interesdunek espedientea kontzeju aretoan aztertu ahal izateko eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak idatziz aurkezteko, hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin-behineko erabaki hori behin betiko onetsizat emango da.

Armiñonen, 2023ko martxoaren 8an

*Lehendakaria*  
**RAQUEL BAJOS ALONSO**